


**Familiaren etxetik kanpo bizi diren gazteen erdiak baino gehiagok 900 € baino gutxiago izaten du hilean.**

Neskek mutilek baino diru gutxiago izaten dute hilean, nesken %20,5ak baitio, mutilen %26,4aren aurrean, hilean 900 € baino gehiago izaten duela.

*Euskadiko Gazteak 2008* azterlanaren emaitzek adierazten dute 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ia erdiak (%49,1) 300 € baino gutxiago izaten duela hilean; %27,4ak 301 € eta 900 € bitartean, eta %23,5ak 900 € baino gehiago.

Azken zortzi urteetan, gora egin du hilean 900 € baino gehiago izaten duten gazteen taldeak.



Iturria: Euskadiko Gazteak. Gazteen Euskal Behatokia

Adin-taldee dagokienez, 15 eta 19 urte bitarteko ia gazte guztiek (%93,8) 300 € baino gutxiago izaten dute hilean. 20 eta 24 urte bitartekoen taldean, batetik, 300 € baino gutxiago izaten dutela dioen gazte-talde garrantzitsua (%44,5) nabarmentzen da, eta bestetik, gazteen %36,9ak dio hilean 600 € baino gehiago izaten dutela. Azkenik, adin handieneko taldean, 25 eta 29 urte bitartean, hamar gaztetatik ia zazpik (%67,9) 600 € baino gutxiago izaten du hilean.

**15 eta 29 urte bitarteko gazteek hilean izaten duten diru-kopurua, sexuaren eta adin-taldearen arabera. %. EAE. 2008**

	15-29	Sexua		Adin-taldeak		
		Gizonezkoak	Emakumeak	15-19	20-24	25-29
60 € baino gutxiago	17,0	15,6	18,4	47,9	7,1	2,3
60 € eta 300 € bitartean	32,1	33,6	30,7	45,9	37,4	14,0
301 € eta 600 € bitartean	13,4	10,4	16,4	3,4	18,5	15,7
601 € eta 900 € bitartean	14,0	14,1	14,0	1,0	12,5	27,0
900 € baino gehiago	23,5	26,4	20,5	1,7	24,4	40,9
Guztira	100	100	100	100	100	100

Iturria: Euskadiko Gazteak. Gazteen Euskal Behatokia

Gazteen lan-egoerari dagokionez, ikasleen gehiengoak (%55,5) 60 € eta 300 € bitartean izaten du hilean. Lan egiten dutenen artean, %52,8ak 900 € baino gutxiago izaten du hilean, eta ikasi eta lan egiten dutenen %60ak, berriz, 60 € eta 600 € bitartean. Eta, azkenik, langabezia dauzuden hamar gaztetatik zortzik (%88,2) 900 € baino gutxiago izaten du hilean.

Ohiko etxebizitzaren ikuspegitik, familiarekin (gurasoekin, anai-arrebekin...) bizi diren gazteen erdiak baino gehiagok (%58,4) 300 € baino gutxiago izaten du hilean, familiaren etxean bizi ez diren gazteen %53,1ak, aldiz, 900 € baino gutxiago izaten du, eta astean zehar familiaren etxean bizi ez diren eta asteburuetan eta oporretan familiarekin bizi diren gazteen %64,7ak, 60 € eta 300 € bitartean izaten du.

**Erlazionaturiko datuen kontsulta:**

15 eta 29 urte bitarteko gazteen independentzia ekonomikoari buruzko adierazle estatistikoak.

*Euskadiko Gazteak 2008* txostena

**Erlazionaturiko loturak:**

Gazteen Euskal Behatokiaren adierazle estatistikoaren sistema

Gazteen Euskal Behatokiaren ikerketa soziologikoak